

“EHUN URTE BIHOTZETAN”

LA MILAGROSA IKASTETXEAREN MENDEURRENA

Lelo horren pean, La Milagrosa ikastetxeak Laudioko herriarekin, ehun urteko ibilbideari eta zerbitzuari, ospatzeko eta partekatzekeo jarduera ziklo bati hasiera emango dio otsailaren bian, modu formalean.

Ekitaldi instituzionala 12:00etan hasiko da Karitateko Alaben zentroan, eta bertan izango dira hezkuntza-erakundeetako ordezkariak (hezkuntza-sailburua), tokiko agintariak (alkatea eta udaleko zinegotziak) eta herriko kultura-, hezkuntza- eta erlijio-elkarteetako ordezkariak, egungo covid egoerari egokitutako edukierarekin.

Ekitaldia 10:00etatik 13:00etara izango da eta egitura hau izango du:

- *Bertaratutakoei ohorezko aureskua egingo diete, ikastetxeko bi ikasle eta bi irakaslek egina.*
- *Ondoren, ikasle batek pianoan obra bat interpretatuko du, gonbidatuei ekitaldi aretora lagunduko diena, eta bertan ospakizunarekin jarraituko da.*
- *Zuzendari titularraren ongietorria.*
- *Alkate jaunaren esku-hartzea.*
- *Gotzain jaunaren agurra.*
- *Pregoa: M^a del Yermo Urquijo (ikasle ohia).*
- *Eusko Jaurlaritzaren esku-hartze instituzionala: sailburua.*
- *Ikastetxeko talde koral baten emanaldia.*
- *Ikastetxeko hainbat adinetako ikasleek egindako poemak irakurtzea, ikastetxeak berriki argitaratutako liburuan jasotakoak: «Polimetria/Ehun urte errimatzen».*
- *Argazkien erakusketaren inaugurazioa kultur etxean, ehun urte hauetan La Milagrosa Ikastetxearen historia eta bilakaera erakusten duena.*

Ekitaldia streaming bidez emango da, eskola guztietarako, ikastetxeko sare lokalaren bidez. Ondoren, zentroko youtube kanalera igoko da (<https://www.youtube.com/c/lamilagrosalaudio>), familiek edo interesa duen edonork gozatu ahal izan dezan.

Ekitaldi akademiko honek, Eukaristia eta Hezkuntza Komunitateko hainbat kideri omenaldia egitearekin batera, hainbat hilabetetan zehar egingo diren ekitaldiei hasiera ematen die, eta argi eta garbi erakusten dute ikastetxe honen karisma, umiltasunetik eta lanetik abiatuta etorkizuneko berrikuntzaren eta hezkuntzaren aldeko apustua egiten duena. Silvia Gironés izango du lagun, Universitat Oberta de Catalunya (UOC) irakaslea. Industri ingeniaria eta MBA. Berrikuntzan eta enpresen sorreran aditua. Hezkuntza pertsonalizuaren metodoaren egilea: ideietatik ekintzara, duela gutxi argitaratu duena *Prefiero morir a estudiar* liburua.

Elkartasunak, zentro honek berez duen balioak, lehentasuneko lekua izango du ospakizun honetan. Pintxo solidario bat antolatuko da herriko plazan, txikienezako eta handientzako hainbat gunerekin (jolasak, musika...).

Kulturak tartea izango du, Assumpta Serna aktore protagonistak parte hartuko duen *Red de libertad* filmaren proiektioarekin eta ikastetxeko ikasle guztiek parte hartu duten *Polimetria* izeneko poema liburuaren argitalpenarekin.

Ez da faltako ikasle ohien bazkaria, Ampaseko Batzarretakoak, ezta JMV- Gazte Mariana Vicencianoen eguna ere.

Mendeurrena ekainaren 18an itxiko da Santa Luzian ospatuko den jai batekin eta Laudioko herri osoa gonbidatuta dago bertara.